

ANGOSTOKO JARDUNALDIAK

1983. Apirilaren 28, 29 eta 30ean

Jose M.^a Satrustegi

Angoston, Arabako lurraldean, 1983.eko Apirilaren 28, 29 eta 30ean egin zituen Euskaltzaindiak bere III. Barne-jardunaldiak. Bataz beste, honako pertsona hauek etorri ziren, L. Villasante buru eta J. M. Satrustegi idazkari zirela: P. Altuna, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, eta J. San Martin euskaltzainak. J. A. Arana Martija *Azkue Bibliotekako* buruordea, R. Badiola argitalpenen eragilea, M. P. Lasarte Gramatika batzordeko idazkari ordea, J. L. Lizundia idazkari ordea, Imanol Unzurrunzaga oinarrizko euskararen idazkaria, J. M. Velez Mendizabal Literatura batzordeko idazkaria eta J. J. Zearreta Ekonomi batzordeko eragilea, denak euskaltzain urgazleak. Federico Gonzalez eta Alberto Garate jaunak etorri ziren diruzainaren aholkulari.

Apirilaren 28, osteguna. San Prudentzio. Goizetik, Arabako zaindariaren basilika ikusten izan ginen euskaltzainok Armentian. Eliza erromaniko hau izan da, hain zuzen, Araba, Bizkaia eta Deba ibarreko Eliz-barruti ohiaren egoitza. Festa-giro polita sumatzen zen inguruan.

Arabako lurraldeak ezagutu nahian, erromatarren denborako *Iruña* hiri-aztarnei ingurua emanez, Añana-Gesaltza eta Tostako eliza erromanikoa ikustera joan ginen. Bazkaria Angosto Santutegiko fraile-etxean prestatua ziguten.

J. B. Gamiz, XVIII.mendeko arabar idazlearen bertso liburua aurkeztu zuen bezpera arratsaldean Euskaltzaindiak, Arabako Foru Diputazioaren jauregian, batzar-agirian esan bezala.

I. Jardunaldien aurkezpena

Arratsaldeko lauretan hasi zen Jardunaldien lehen saioa. L. Villasante, euskaltzainburua, mintzatu zen lehenik, zertarako bildu ginen aditzera emanez. Euskaltzaindiak hazkunde handia lortu du eta horrek bere problemak sortzen dizkio. Bizilegea da. Aurrera begira, gaurko egoera aztertu eta zailtasunak bideratzea zen, beraz, jardunaldion helburu nagusia. Arautegiari jarraitzea izango da bidea, eta denon borondate onak gaituzko ditu sor daitezkeen ikusmolde ezberdinak. Oinarrizko agerpenaren ondoren, gure artean nabarmentzen diren tirabira eta legezko hutsune nagusiak aipatu zituen euskaltzainburuak.

A. Irigoyen jaunak, aurreko batzar-agiriaz oharren bat egiteko hitza eskatu zuen. Hileroko batzarrean aurkezteko gelditu zen.

Esquarteko arazoan artean, batzarrera ez datozen euskaltzainen egoera aipatu zen. Denon beharra luke Euskaltzaindiak ekintza guzietan buru ematen joateko, eta hutsarte hori nabarmena da, noski. Irtenbide batzu aurkeztu ziren, eta beste Akademia batzutan baliatzen duten ordaina izendatzea ere aipatu zen. Egoera honetan, inolako erabakirik ez hartzea ikusten zen komenigarriena. Gero ere, bakarka ikusi daiteke zenbaitzuren harrera ona, irtenbide bat aurkitzen joateko.

II. Egoitza eta ordezkariaren egitekoak

Atsedenalditxo baten atzetik, arratsaldeko zazpi etan, J. San Martin Jagon Sailburuaz bulego-lanak eta lengileen eginkizunetaz egin zuen txostena, irakurri zuen. Azken orduan eskatu zitzaizkion lana eta presaka prestatu behar izan zuela, esan zuen. Ordezkariaren bakoitzaren eginkizunak agertu zituen lehenik. Lanen plangintza zehatzagoa beharrezkoa ikusten zuela. Gauza gehiegi metatzen da, batzutan, pertsona baten gain eta denbora berean lanik gabe aurkitzen da bere laguna.

Elkarrizketa luzea sortu zen arazo honetaz. Itzulpenen zerbitzua aipatu zen lehenik. Beti etorriko dira zenbait hitz eta esatera laburren itzulpen - eskariak, eta geutako bakoitza ahaleginduko gara erantzunak ematen, orain arte bezala. Baina itzulpen luze eta liburu edo liburuskak kontuan, Euskaltzaindiaren eginkizuna al da itzulzaileen zerbitzu bat eskaintzea? Hau zen kezka nagusia. Itzultzaileen eskola bada eta, jadanik, hartu izan dituzte zenbait lan. Administralgo gaietarako hor dago Oñatiko eskola.

Erantzunak, batzutan, garrantzi handia dute. Eusko Jaurlaritzatik, esate baterako, "Defensor del pueblo" euskaraz nola esan daitekeen, galdetzen zuten. Hitzaren edukia kontutan harturik, inguruko herrialde eta euren hizkuntzetan erabilitako esakerak ikusi ziren. Beste askoren artean, *Ararteko* hitza aukeratu zen, Euskaltzaindiaren batzarrean proposatzeko.

III. Batzordeen egoera

Apirilaren 29, ostirala. Ekonomi batzordeak prestatua zuen aintzinasmoen txostena gerorako utziz, Euskaltzaindikoko batzordeen egoera aztertu zen goizeko bedratzi terdietan. Batzordeen egitekoa eta berorien arteko eremuen mugak agertu zituen J. L. Lizundiak. Batzorde iraunkorrak eta suntsikorrek berezi zituen txostenean, eta kopurua gutxitzea proposatu zuen. Horretarako, antzeko gaiak elkarretaratu behar ziren, eta hau izan zen goiz hartako lana.

Argitalpenak. Argitalpen batzordea izan daiteke egitura mailako bakarra. Berri batuko dira: a) *Euskera* agerkaria. b) Lekukoak. c) IKER eta JAGON. d) Bestelako liburu eta argitalpen guztiak.

Iker Saileko batzordeak lau izan daitezke:

Hiztegiak. Batzorde honetan sar daitezke: a) Maileguzko hitzak. b) Mitxelearen hiztegia. c) Euskaltzaindiaren beste hiztegiak. d) hitzen normalizapenerako lanak.

Gramatika. Orokorri hartuz, gramatika-lan guzietan hemen izango lukete beren lekua, alde batetik. Une honetan, gainera, Euskaltzaindiaren Iruñeko Kongresoa gra-

matika gaietaz izango denez, batzorde honek hartu du bere gain lanen ardura. Aditza-zen azken atala burutuko duen batzorde suntsikorra ere hemen sar daiteke.

Euskalkiak. Orain arte *Dialektologia* lanen batzordea zena, eta Atlas egingo dutenena elkarrekin doaz.

Onomastika. Batzorde honen eginkizunak hauek izango dira: a) Diktamenak. b) Izen ikerketak. c) Herri Izendegia. d) Toponimia lanak eta e) Pertsona Izendegia.

Jagon Saileko batzorde iraunkor bakarrak har ditzake bestelako ekintza guziak:

Literatura. Azpi-batzorde hauek osa dezakete: a) Literatur-batzordearen eragintza. b) Bertsolaritza. c) Herri jakintza.

Azkenekoz, *Diruzaintza* eta *Azkue Biblioteka*, batzorde berezien bidez eramango dira.

Oraingoz, gelditzen diren beste batzorde suntsikorrek bi dira: *Oinarrizko euskararena* eta *etsaminak* egiten dituenak. Azken hau Nafarroako azterketei begira, batez ere.

Euskalarien harremanetarako sortu zen batzordea desagertzen da.

Ondoren hauek Euskaltzaindiari proposatzea erabaki zen eta, era berean, batzorde bakoitzerako zenbait izen jaso ziren. Pertsona bakoitza batzorde askotan egotarik ez dela komeni, esan zen.

Eskuarterko gaietan, bi puntu ukitu ziren: *Euskararen Gaitasun Agiriari* buruz (E.G.A.), Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak eskari hau egiten du: Nafarroan eta, bide batez, Iparraldean egingo diren euskararen azterketak E.G.A.-ren antzekoak izan daitezela, Euskal Herri osorako baliagarri gerta daitezela. Euskaltzaindia eta Hezkuntza Saila harremanetan egotea komeni da eta agiria lortu duten guzieren zerrondak batakat besteari bidaltzea. Oso ongi iduritu zitzaizkien batzartuei.

Hezkuntza Sailburuak bidalitako bigarren gutun bat ere eztabaidatu zen goiz honetan. Gaia: *Euskararen Erabilkera Bizkaiko Irakaskuntzan*. Bizkaieraren idatzizko ereduak zaintzeko Lantalde baten izendapena jakinerazten zion Euskaltzaindiari. Izenen eta aditz-jokoaren lana kontutan harturik, eta jokamolde berdinari jarraituz, joskeraren alorrean leudekeen zereginei erantzun nahi diete, oraingoan, guzti horren emaitza Euskaltzaindiari aurkezteko, gero. Gai garrantzitsua denez, hileroko batzarrean erantzuna emateko utzi zen.

IV. Ekonomi batzordearen txostena

Hamabietan, atsedenditxo baten ondoren, hasi zen goizeko bigarren saioa. E. Knörr, diruzainak, eskuarterko gaien berri eman zuen lehenik eta ekonomiaren egoera ikusi zen. Euskal parlamentarien bidez Madrilgo erakundeei diru-laguntza eskez egindako jectioa azaldu zuen. Gasteizko bulegorako langile berri bat hartu dela ere esan zen.

Euskal Herrian zehar egindako liburu-azokei buruz, iaz ikusitako akatsak eta ondoreak kontuan izanik, erakusketa garrantzitsuenetara bakarrik agertzea erabaki dutela, jakinerazi dute arduradunek. *Azkue Bibliotekaren* aseguratza aipatu da gero. Gaurkotu beharra ikusten da dugun poliza, baina bere balio osoaren neurketa egiten ibili gabe. Balio gehiena, ale arraro eta bakarrek dute, eta hauek erretzen badi-

ra berriz erosterik ez legokeenez, ez du merezi hauen asegurantzan diru gehiegi xahutzerik. Hobe ikusten zen suaren aurkako neurri zenbaitetan diru hori sartzea: arramaio bereziren batzu erosi daitezke edo Bankoetan egon ohi diren kutxasendoetara hoberenak eraman. Idatz-gordailu eta Biblioteka, egoitza berriaren sotoan kokatzerik ez da komeni, hezetasunik ez eta kanpoko haizea maiz aldatzea eskatzen bait dute paper-gauzek.

Eta bazkal garaira heltzean, besterik gabe amaitu zen lansaiola.

Arratsaldeko hiru t'erdietan, gai berarekin jarraitu zuten batzartuek. *Campion-Broussain*, legezko azpi-elkargoa aipatu zuen diruzainak. Arazo honetan aholkulari diren Federico González eta Alberto Garate eseri ziren mahai buruan eta euskaltzainen asmo eta eritzia jaso nahi zituztela beren lana egin aurretik, aditzera eman zuten. Elkarrizketa luzea sortu zen orduan. Gai berria zela beretzat, esan zuen Iri-goyen jaunak eta erdal Akademiak arazo horiek nola bideratu dituen jakin nahi zuela, agertu zuen.

Espainiako Akademiaren egoera arras desberdina dela, erantzun zion J. San Martin Jagon Sailburuak. Ildo beretik ihardetsi zion J. J. Zearreta ekonomia eragileak. Egoitza bakarra du Madrilgo Akademiak; Euskaltzaindiak, aldiz, Bilbon bertan hiru solairu ditu, eta lau ordezkariak bestalde. Madrilgoa hiru langilez baliatzen da eta Gobernutik ordaintzen dizkiote. Hiztegegintzako lana —fitxak eta abar— ikasleen laguntzaz egiten dute, zer-edo-zer ordaindiz.

Gailegoek arduradun bat eta bi langile besterik ez dute Akademiaren harreman guzitarako. La Coruña-ko Udalak ordaintzen ditu pertsona hauen kostuak.

Oso berezia da, bestalde, Catalunya-ko kasua. *Institut d'Estudis Catalans* erakundearen barnean mugitzen da hizkuntzaren ardura duen saila, beste lansail batzuren inguruan. Hirurehun milioren xahuketa izan ohi du denentzat, urtearen buruan. Barzelonako Diputazioak emandako "Hospital de la Santa Creu" delakoan dauka bere egoitza Elkargoak. Euskaltzaindiak bere gain hartuak dituen ekintzak asko dira eta, eta denen finantziaketa lortu behar du egunetik-egunera.

Idazkaria mintzatu zen gero. Sortu nahi den azpi-elkargoa behar beharrezkoa ikusten duela esan zuen, ekonomia eta langile-alogera kontuan duela, legezko hutsunea betetzeko. Sortzekoa den azpi-elkargoak, halare, ez luke Euskaltzaindiaren bigarren indar bat izan behar. Erabakiak har ditzakeen buru bakarra Euskaltzaindiko Batzarra izango da, eta honen aginduz izenpetuko ditu ekintza guziak beste elkargoak. *Campion Broussain S. A.* elkargoaren zuzendaritza hiru bat pertsonaren esku uztea proposatu zuen, ez bait du erabaki bereziak berterik izango: Euskaltzainburua, Idazkaria eta Diruzainak, adibidez, osa dezakete.

V. Bi urterako ekintzen sailkapena

Arratsaldeko seirak inguruan, 1983-1984 urte-birako eginkizunen egitarau nagusia finkatzeko saioari hasiera eman zitzaion.

Euskaltzaindiaren X. Kongresoa. M. P. Lasarte, gramatika batzordeko idazkari-ordea, Iruñeko Kongresoaz mintzatu zen. Urte hauetan egin dituzten ikerketa lanen kopurua hor dago, alde batetik. Kongresorako oinarrizko txostenak agintzeko bilera batzu egin dituzte. Txosten nagusien ardatza finkatuxea dago, eta asmo

nagusiak bateratzen doaz. Txostenak eta agerpenak bialtzeko epeak ere mugatu dituzte.

Mailebuzko hitzak. Iaz hasitako lanari jarraipena emateko Jardunaldiak aipatu ziren. Ekainaren hondar egunak izan daitezke egokiak. Iruñean izango denez hilero-ko batzarra, egun horren inguruan saia gintezke maileguzko hitzen azterketa burutzen.

Dialektologia. Euskalkien bilketa-lanari jarraituz, Markina ikusten zen batzorde honen jardunaldiak egiteko toki ona, eta irailaren 22, 23 eta 24 eman ziren egun egokitizat, ikastaroa hasi aurretik eta oporrak amaituxeak izan ohi direlarik. Gaiak: a) Euskalkiak eta batua. b) Batzordeak egin duen lanaren balantzea eta azterketa. c) Gerorako programaketa.

Azentua. 1984.eko Errege egunaren inguruan-edo berrikus daiteke gaia.

Apirilaren 30.Larunbata. Goizeko bedratziretan hasi zen Jardunaldi hauetako azken bileran. Maiatzaren 23an Uztaritzen egitekoa den ospakizunaz mintzatu zen J. Haritschelhar, buruordea. Hizlariak, ostatua, batzargela eta beste zehetasunak hizartuak direla, esan zuen. P. Lafitteri eskainitako omenaldi honetan, IKER-2 aurkeztea izango da ekintza nagusia. Denbora berean, Iparraldeko urgazle berriek beren agiria jasoko dituzte.

Katalan eta gailegoekin Akademia mailan izandako harremanetaz mintzatu zen, gero, J. San Martin jauna. Katalandarrek ez dute hain behar gorria ikusten. Gailegoek, aldiz, oso ongi hartu dute asmoa eta prest daude aurrera eramateko. Hizkuntzaren egoera ere ez da, noski, herrialde guzietan berdina. Gailegoek % 80 erabiltzen dute euren hizkuntza Parlamentuan, eta katalanek % 100, euskaldunok ez bezala. Politika kutsua kendu behar zaiola hizkuntzari azpimarratu zuen Jagon Sailburuak.

Madrilgo agintariei diru-laguntza eske joaterakoan, Espainiako Akademia ere barne egon behar lukeela, aditzera eman zuen hizlariak. Datorren urteko aintzinkontuak Gobernuak onartu aurretik beste bilkura bat egiteko xedearekin amaitu zuen jectioaren aurkezpena.

Batzordeburu eta berorien idazkariei urteko eginkizunen egitaraua eskatuko zaiela gutun baten bidez, esan zuen J. L. Lizundia idazkariordeak. Urte azkenerako, berriz, egindakoen memoria igorri behar dutela, gogoratu zuen. Bulegoetan jasotako gutunen berri ez zuela Batzar eguneraino, gehienetan, jakiten, aditzera eman zuen idazkariak.

Eta besterik gabe amaiera eman zitzaien Barne-Jardunaldiei.

Txangoa. Goizerdi aldera, *Valpuestako* Kolejiata eta *Barahonatarren* Billanañe-ko gaztelua ikustera abiatu ziren denak. *Berberana*-n bazkaldu ondoren, Nerbioi ibaiaren iturburu eta bertako amildegia ezagutu zituzten, etxeetara itzuli aurretik.